

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun, arropa-pieza askok pertxetan zintzilikatzeke telazko tira meheak ekartzen dituzte josita. Guk beti moztan ditugu arropa-pieza hori janzteko orduan, ikusi egiten baitira. Behin moztuta ezin dira berriz ere ipini eta zailtasunak izaten ditugu pertxan zintzilikatzeke eta behin baina gehiagotan topatu izan dugu gure arropa-pieza armairu barruan zintzilikatu gabe erori egiten baitira.



Beraz, arazo honi konponbidea eman ahal izateko guk produktu berritzaile eta bakar bat sortu dugu: **jartzen eta kentzen diren tira magnetikoak** hain zuzen ere. Horrela adibidez, manga bateko blusa bat pertxan ipini nahi dugunean aukera izango dugu erori gabe zintzilikatzeke eta janzteko orduan tira horiek kentzeko. Hau gizarteko biztanle guztientzat izan daiteke aproposa eta erabilgarria, izan ere, arropa gustatu edo ez pertxak denok erabiltzen ditugu.



Lehiakideengandik bereiz gaitezke honakoen bitartez:

- Berritasuna → aurrez existitzen ez den produktua da baina behar bat asetzea du helburu. Guk zerbait berritzailea eskainiko dugu askoen egunerokotasuna aldatu eta erreztuko duena.
- Prestazioak → erabilgarritasuna eta erosotasuna du helburu nagusi.
- Pertsonalizazioa → guk produktuaren ideia bera eskainiko diegu bezeroei baina kolore eta tamaina desberdinak izango dituzte, gure bezeroaren arabera izango dira eskaintzak (luzeagoa, motzagoa, beltzak, moreak...)



- Diseinua → Diseinua sinplea den arren, oso erabilgarria eta eroso izango da. Tamaina txikia izango du eta edozein pertxetara egokituko da. Gainera, kolore ezberdinak izango dituzte gure bezeroen gustuen arabera.
- Marka/Estatua → gure marka eksklusiboa izango da, inoiz sortu ez den produktua eta oso berritzailea delako.



- Prezioa → gure produktuaren prezioa arrazoizkoa izango da, hau da, ez da garestia izango, produktu oso sinplea delako.
- Arriskuen murrizketa → gure produktuak ez ditu arriskurik sortuko oso erraz erabiltzen den produktua baita.

- Eskuragarritasuna → gure produktua edonorentzat eskuragarria izango da, gure bezeroak ez dira maila ekonomikoetan bereiziko beharraren arabera baizik, oso merkea izango baita.
- Erabilerraztasuna → gure produktua oso sinplea da eta bezeroentzat erraza da produktu hau behar bezala erabiltzea.